

IRRATIEN LIZENTZIAK. «Ez gara jainkoak, baina epaileak ere ez», esan zuen Parlamentuan

Ardura politiko guztiak ukatu eta epaileen lana kritikatu du Palaciosek

Oposizioak berretsi du kontseilariak eta zuzendari nagusiak karguak utzi beharko lituzketela

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

Jose Ignacio Palacios Nafarroako Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak ez du irrati lizentzien aferarengatik ardura politikoak hartzeko asmorik. Gainera, Nafarroako Gobernuak epaitegietako azken erabakiari errekurtsioa jarriko diola esan zuen atzo, Parlamentuan egindako agerraldian.

Miguel Sanz lehendakariak lehengo astean esandakoa berretsi zuen kontseilariak; alegia, Zangozako lizentzia banatzeko prozeduran ez zela boterearen desbideraketarik, ez zutela jo baldintzen txostenak zioenaren aurka eta ez zutela hautsi baimenen lehiaketa arautzen zuen dekretua.

Hala, akatsak baino ez zirela izan iradoki zuen kontseilariak. «Gu ez gara jainkoak, eta huts egin dezakegu, baina garbi daukagu legearen arabera jokatu genuela prozedura osoan», esan zuen.

«Epaileek ere huts egin dezakete»

Angel Sanz Komunikazio zuzendari nagusiak lagunduta agertu zen Palacios parlamentarien aurrean, eta Administrazio Gaietarako Auzitegiak irailaren 26an emandako epaia aztertzeari ekin zion aurrenik.

Esan zuenez, epaileek ez dute atzeman Zangozako lizentzia emateko prozeduran delitu zantzurik, eta bideragarritasun ekonomikoa nahikoa ez zela aztertu, hori zela epaitzen zena azpimarratu zuen.

«Esan behar da epaileek ere huts egiten dutela», adierazi zuen kontseilariak, «eta horregatik helegitea aurkeztu dugu, ez gaudelako epaiaren arrazoiekin ados».

Palaciosek argudiatu zuen, gainera, epaia ez zela irmoa, baina behin betiko erabakia iristen denean men egingo zutela adierazi zuen.

Desmen eta prebarikazio zantzuak Batasunarendako

Atzoko agerraldia Fernando Barrena Batasuneko bozeramaileak eskatua zuen, eta erantzutean dudak agertu zituen Nafarroako Gobernuak erabakia errekurritzeko hartutako bi-deaz.

Kexu helegitea harrituta hartu eta Gobernuak «desmen eta



JAGOBA MANTEROLA/ ARGAZKI PRESS

Angel Sanz eta Jose Ignacio Palacios, atzo, Nafarroako Parlamentuan.

prebarikaziotik gertu» zegoela esan zuen.

«Epaia garbia da», azaldu zuen Barrenak, «eta berresten du herritarrek eta Parlamentu honek pentsatzen dutena. Ondorioz, kontseilariaren eta zuzendari nagusiaren dimisioa eskatu beharrean gaude berriro».

Jose Miguel Nuin IU-EBkoak ere nabarmendu zuen Administrazio Gaietarako Auzitegiaren erabakia 1999ko ikerketa batzordeak ondorioztatukoarekin bat zetorrela, eta azken emaitza «beste bat» izan behar zuela. Orobat, kritikatu zituen kontseilariak epaia interpretatzeko egindako ahaleginak.

«Ezin dira jarri maila berean epai bat eta letratu baten iritzia pertsonala», agertu zuen Nuinek, «horrek ziurtasunik eza eragin dezakeelako herritarren artean».

Jose Andres Burguetek (CDN) gogor hitz egin zuen bi goi karguen ardura politikoez, eta ikerketa batzordean hartutako erabakiek balio bera zutela esan zuen.

«Orduan esan genuen gaitzetsi eta zentsuratu egiten genuela kontseilariaren eta zuzendari nagusiaren lana, eta lehengo

ESANAK

JOSE IGNACIO PALACIOS (Komunikazio kontseilaria)

«Ez gara jainkoak, baina garbi dugu legearen arabera jokatu dugula»

BERNANDO BARRENA (Batasuna)

«Kontseilariaren eta zuzendari nagusiaren dimisioa eskatu beharrean gaude berriro»

JOSE ANDRES BURGUETE (CDN)

«Parlamentuko batzordeak zentsura politikoa egin zuen, eta orain zigor zentsura iritsi da»

zentsura politikoa zen, eta orain auzitegiek zigor zentsura frogatu dute». Burguetek, nolahi, prozedura guztia bukatu arte itxaroteko deia egin zuen.

Jose Manuel Goikoetxea (EA-EAJ) «Nafarroako aniztasun informatibo eta linguistikoa murrizteko saioa» azpimarratu zuen, eta Milagros Rubiok (Batzarre) ideia bera berretsi zuen. «Gai honek garrantzi politiko handia du, ikusten delako orduan bazeudela arrazoi ezkutak, oraindik ezkutuan daudenak».

ETORKINAK

Polizioei abokatua eskaini beharrik ez duela dio Bizkaiko ordezkariak

Europa Press | BILBO

Santurtziko portura iristen diren polizioei abokatua ez jartzean legea bete-arazi duela esan zuen atzo Espainiako Gobernuak Bizkaian duen Ordezkaritzak.

Horrela erantzun zien atzo Ordezkaritzak CEAR Euskadik (Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordeak) bere aurka iragarritako hiru salaketei. CEAR Euskadiren arabera, Ordezkaritzak Espainiako Atzerriarren Legearen 22. artikulua urratu zuen, polizioei laguntza juridikoa ez emateagatik. Bizkaiko Ordezkaritzak, ordea, adierazi zuen atzo legeak ez duela behartzen polizioei abokatua jartze-ra baldin eta ez badute babes eskubidea aldarrikatzen. Itzultzaile baten eta bi lekukoren aurrean deklarazioa hartzea baizik ez du behartzen.

Iritsitako polizioiek ez dute babesik eskatu

Espainiako Gobernuaren ordezkariak onartu egin zuen urtarilaren amaieran CEAREk polizioentzat laguntza juridikoa eskatu ziela talde parlamentarioei, baina oraindik neurririk hartu ez dela azpimarratu zuen.

Gobernu Ordezkaritzak dioenez, azken bi asteotan Santurtzira iritsitako bederatzi polizioen artean inork ez du eskatu asiloa. Gainera, arrazoi ekonomikoengatik egin zuten alde beren herrialdeetatik eta ez, ordea, asiloa lortzeko eskubidea eman diezaieken jazarpen politiko, erlijioso edo etnikoagatik.

Otsailaren 18an



Hendaia, Irun, Hondarribi, Pausu, Biriatu